

ZERGATIK DA BEHARREZKOA FEMINISTA IZATEN JARRAITZEA?

ISTORIO GEHIAGORIK EZ (Emakume Internazionalistak)

SARRERA

Emakume Internazionalistak taldeak ponentzia hau komentatu eta eztabaidatu nahi dugu: feministak izaten jarraitzeko beharra, geure buruak feministatzat aldarrikatzea. Eta jardunaldi hauek bezalako markoa ezin hobea da horretarako.

Gure abiapuntua eta kontzepzioa honakoa da: feminismoaz hitz egitea gure jendartean gaizki ikusia dagoen kontua da; mundu globalizatu honetan, adierazten denean, alde batera uzten dituen balore eta "ohitura sozial onen autodenominazioa. Ez da ona feminista izatea. Inoiz ez da politikoki zuzena denaren aukeren barruan izan: momentu jakin batzuetan zarena zarela esan behar denean, status quo sozialaren barruan balio erantsia ematen diolako. Hobe esanda, geure buruak feministatzat aldarrikatzea, susmoa eta aurreiritziak sortu ditu eta sortzen ditu, eta baita ona ez den, zerbaiten aurreko jarrera defentsiboa ere.

Oraindik ere, puri-purian daude hainbat sinesmen: feminismoa matxismoaren aurkakoa dela, feminismoa gizonen aurkakoa dela edo feministak, feministak direla inor kez dituelako maite. "Sexuen guda", delakoa da telebistako tertulia zentzugabeetan eztabaida izarra. Emakumeen burujabetzearen aldeko borroka kontatzeko orduan, sentsazionalismoak, ideien sinpletasunak eta arruntasunak, martxoaren 8aren inguruan hamaika orrialde, telebistako programa eta eztabaida betetzen ditu.

Gainera, gaur egun, mugimendu feministaren aurkako argudiatze ildo nagusi bat dugu, emakumearen diskriminazioa guztiz gaindituta dagoela dioena. Zentzu honetan, inoiz ados egon ez den Feminismoa zaharkituta dago. Are gehiago, espekulazio hauek egin dituzten pertsonak, inoiz emakumeen diskriminazioa amaitu zedin lagundu izan balute bezala. Jendartearen zati handi batean, jende gaztearengan batez ere, gauzak asko aldatu direnaren uste okerra dago, eta desberdintasun gune txikiak geratu arren, politika instituzionalekin hauek desagertzen joanen dira.

Gauzak horrela, mugimendu feministan militatzea edo Feminismoei buruz hitz egitea, gaur egun, eremu oso murrizetara mugatzen da. Berdintasun politikei, lan eta familia bizitzaren kontziliazioari edota genero ikuspuntuei buruz hitz egitea, "moderno", "guay", "ilustratua" da. non ote daude egoera honen arrazoiak?

Ponentzia honek hainbat puntu komentatzea du helburu, jarraian, borroka feministako urte luzeen ondoren, eszenatoki hauen moduei eta helburuei buruz eztabaidatzeko. Feminismoa, oraindik ere sozialki onartua ez dagoen mugimendua da, profanoen eskutik burla eta trufa arrazoi eta ikerlarien aldetik axolagabekeria. hau da, ez da serio hartu, ez zaio beste

mugimendu sozial batzuei eman zaien estatusa eman: ekologismoa, antimilitarismoa, langileen borroka... Oinarria oso argi dago. Sistema honetako antolaketa soziala, ekonomikoa, politikoa hankaz gora jartzeko duen ahalmen kritikoa eta iraultzailea, suntsitzailea da. Zergatik orduan ez gara zentzudunagoak diren bizimoduetan antolatzen?

Ponentzia honetan, honetaz guztiaz hitz egitea dugu helburu. Feminista militante talde bat gara, duela 20 urte inguru antolatuak, Iruñea eta inguruetan lan egiten dugunok. Gure abiapuntua eta helmuga militantzia da, eta hortik nahi dizuegu hitz egin. Ponentzia hau jarrera hartze politiko bat da, ez datu bilketa, ez metodo zientifiko bat, ezta aipamen irudituen multzoa. Hau argi utzi nahi dugu eta hortik hitz egiten dugu. Hasteko "Despolitizaziorantz ihesa" deitu dugun zerbait kontatuko dizuegu: gure iritzian, berdintasun politikek eta genero ikuspegiaren ikuspuntuak mugimendu feministan duten eragina. Ondoren, mugimendu sozialei buruz hitz egingen dugu eta zergatik Feminismoak ez duen inoiz alor hori alde batera utzi behar. Azken hau, ikuspuntu feminista berrieekin eta gure herri borroketara hauen ekarpenekin lotuko dugu. Amaitzeko, politika instituzionaletik gutxi ukitzen diren hiru eremu azpimarratuko ditugu, guretzako borroka feministan oinarritzkoak eta munduan, herrialdeak eta kulturak ahaztuta, emakumeen jarrera aztertzeko funtsezkoak direlako.

DESPOLITIZAZIORANTZ IHESA

Zer esan nahi dugu honekin? Despolitizatzearen esanahia honakoa da: norbaiti edo gertakari bati izaera edo borondate politikoa kentzea. Mugimendu feminista, beste edozein mugimendu sozial moduan, bere borondate politikoa publikoa egitea du ezaugarrietako bat, emakumeen errealitateetan helburu eraldatzaileak, bere izaera hauslea eta opresio patriarkalaren sustraiak ageriko egitea.

Gaur egun, ikuspuntu zehatz batzuek ez dutela indar feminista eraldatzaile hori eusten mantentzen dugu; aldaketa erradikalerako borondate politikoa, arazoen sustraietaraino heltzen direnena bezala ulertuta. Hitz berriak erabiliz, hots atsegineko izenak jarritz, ideia-indarrei zentzua kenduz edo Feminismoa objektu teoriko hutsean bihurtuz disolbatzen dute.

Zentzu honetan, oinarritzkoa iruditzen zaigu, mugimendu feminista "eguneroko jarrera" batetik aztertzea, genero ikuspegiaren ikuspuntuak eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasun politikek egiten dioten mesedeaz. Gure jarrera zein den azpimarratu nahi dugu, ugariak diren inpaktu ikerketetatik aldenduz: alde eta aurka. Gure abiapuntua gure eztabaida taldea da,

epistemologia feministak, emakumearen alde nazioarteko erakundeek adibidez, egiten duten beste edozein ikerketa kuantitatibo bezain onartua eta onargarria.

Bigarren aipamen bat egin nahi dugu. Inor ez dadila minduta sentitu, mesedez. Bi eszenatokietan onartzen ditugu garaipenak. Baina balantzaren gainean jarrita, mugimendu feministari egin dioten desaiere handienetako bat bere despolitizazioa da. Borroka feministak, teoria sortzen duen arren, funtsean, ekintza eta erantzun soziala sortu behar du.

1.- GENERO IKUSPEGIAREN IKUSPUNTUA.

Ikasketa munduan eta emakumeen baztertzearekin zerikusia duten ikasgaietan oso erabilia. baina zertarako izan zaigu baliagarria Unibertsitateetan Genero departamentuak sortzea? Jakina, bada lorpen bat. Feministok irakurtzeko, eztabaidatzeko eta ikasteko gehiago dugu. Baina, unibertsitateko eremu zaharkitu horiek, borrokarako lekuri uzten dute? Maila teorikoan, lortzen al da ikasleen emakumeen borrokari dagokionez jarrera politiko egokia?, zentzu honetan, indarrak batzen al ditugu? Eta are garrantzitsuagoa, emakume eraldatzaileak taldeetan gehiago elkartzeko al du emaitzetako bat? Genero ikuspegiaren ikerketatik sortzen al dira giro unibertsitario eraldatzaile eta feministak? Gure ustez, hau ez da errealitatea. Batzuek esan diezakeguzue, "kontzeptua zabalago dela". Hauxe gure erantzuna: "kontzeptua despolitizatuta dago". Ez da bere osagai eraldatzailearekin barneratzen. Argi dago, leunagoa da genero ikuspegiari buruz hitz egitea Feminismoari buruz hitz egitea baino. Gainera, emakumeen mendekotasuna ikerketa objektu soilean bihurtzea, militantziazatik eta borroka aukeratik urruntzea sustatu du. Gehienetan, Genero ikerketa, Emakumearen ikasketa Sailak motz geratzen dira; mobilizazioa lortzeko urriak dira. "Ekiteko ezagutzea" leloa, "ezagutzeagatik ezagutzea" leloan bihurtu da, eremu unibertsitarioko interes zaharkituen eraginarekin. Aspaldi Unibertsitateek haien indar iraultzailea galdu zutela. Eta Departamentu hauen bidez, ezagutza zaharkituaren eta funtzionalaren katedraletan, aurkitzen saiatzea, lan ez nahikoa, eta askotan antzua da.

Gure ustez, azpimarratu nahi dugun genero ikuspuntuaren beste mesede eskas bat honakoa da: Botere harremanetan, gizonen ardurak jasotzen ari duen lausotzea. Egia da, patriarkatua, zentzu humanista batean, emakumeak eta gizonak galtzaile ateratzea eragiten duela, baina botere harremanen ikuspuntuak oraindik ere abantailak gizonen esku daudela erakusten du: gizonak aberatsagoak direlako gara gu txiroagoak, erasotuak izaten gara haiek erasotzen gaituztelako, haiek nagusiak direlako gara gu idazkariak. Ikuspuntu honen irakurketa txar baina zabalduta batek behin eta berriz gizonei paper bakegilea ematen dio, borroka pertsonalak alde batera utzita, ahaztu gabe, botere borrokak, haiek galdu nahi ez dituzten gizonezkoen abantailen identifikazioa dakarrela berarekin.

Ikuspuntu honen maila gorenak, bortizkeria gizonengatik eta emakumeengatik gauzatua izan daitekeela dio, horrela, bi aukerak aintzat hartu behar dira. Nola liteke emakumeek bortizkeria gizonen aurka gauzatzea? Inork azalduko digu hau? Ez al da hau ikuspuntu honen hutsaldura gorena?

2.- BERDINTASUN POLITIKAK

Genero ikuspuntuk lagunduta eta berdintasun politketan gauzatua: diskriminazio positiboa, kontziliazio planak, legeen diseinua... Berdintasunaren feminismoa instituzioek mugimendu feministak proposatutako aldaketak aurrera ateratzeko gai direnaren premisatik abiatzen da. Konfiantza instituzional horrek Berdintasunaren idazkaritzen eta emakumearen institutuen sorrera, eta berdintasun eragile lanpostua, eta abar sortzea ekarri du. Berdintasun politikak botereak erabiltzen dituen tresna bezala sortuak, maila gorenera legeen bidez heldu dira. Baina, hitz egin dezagun argi, paritatearen kasuan, emakumeen burujabetzean aurrerapenik suposatzen al du emakume senatari, parlamentari edo batzarkide izatea? Gero eta emakume gehiago ordezkartza politikoan, diskriminaziorik ez izateko baldintza gehiago? Argi dago guk ezetz pentsatzen dugula. Eta abortua, horren erakusgarri argi bat da. Zere gin dute PSOEko emakumeek? Urteetan botere organoetan emakumeen eta gizonen parte-hartze berdinen defendatzaile izan direnak? Non dago emakumeen presio hori, haien kanpainan, ez abortu libre eta doakoa, baizik eta gaia bera sar dezaten?

Nafarroa bezalako komunitate baten egoera laburki aztertuz, honakoa esatera ausartzen gara: berdintasun politika batzuk ezarri ondoren eta Nafarroako Emakumearen Institutu batekin, emakumeen egoera ez da hobea. Are gehiago, okerrera egin duela uste dugu. **Hezkuntzari** dagokionez, ez dago nafar hezkuntza sisteman, hezkidetzak alderdirik gehitzeko asmorik, profesionalak feminizatuak jarraitzen dute, 0-3 zikloa ez da doakoa, ez dago haur eskolan ahikorik, eta abar. **Osasun**ean ere egoera ez da itxaropentsua. Familia-plangintza Zentroak Emakumeari Arreta Zentroetan bihurtzea emakumearen osasunean oso ondorio negatiboak ekarri ditu. Atentzioa medikalizatu da, heziketa sexualak atzerapen nabarmena izan du, nahi ez ziren haurdunaldien jaitsierarik ez da izan, legeak onartzen dituen balizko egoeretan ere ezin da abortatu. Beste eremu batzuetan, emakumeak enpleguari duela 15 urte baino sarbide altuago izan dute? Etxeetan etxeko-lanen banaketa duela 20 urte baino altuagoa da? Eraso gutxiago dago? Zer gertatzen da kalean? Zer gertatzen da etxeetan?

Une honetan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun politikak eraginkorrak izanen balira, arrakastaren ondorioak eta lorpenak biziko genituzke eta hauek, bizimodu hobea emango ligukete

FEMINISMOA, FEMINISMOAK EDO MUGIMENDU SOZIALEAN ERALDATZE POLITIKA.

Gal ez gaitzen, feminismoa mugimendu sozial moduan kokatzea garrantzitsua iruditzen zaigu. Gure ustez, feminista moduan, bertatik abiatu behar dugu.

Bere osotasunean, mugimendu sozial berriak zenbait bereizgarri dituzte. Bat, beste metodo batzuetan oinarrituta dagoen konbentzionala ez den ekintza politika estilo batengatik, adibidez, ekintza zuzena, eredugarriak diren demokrazia garaikideetan alderdi politikoei garatzen duten interesen bitartekaritzarako eredu tradizionalarekin ezberdina dena. Bi, sistemaren aurkako sentimendu gogor batengatik, bere jarraitzaileek erotuak daude arau eta balore dominatzaileekiko, eta hauen aurrean haien errebeldia adierazten dute. Hiru, erabaki-hartze partehartzailea oinarrian duten erakundeak antolatzeagatik, egitura deszentralizatua duena eta prozedura burokratikoak alboratzen dituena. Lau, boterearen kontzepzio berri bat bilatzegatik: harremanak, botere ekonomikoa, soziala, politikoa... duten instituzioekiko jarrera.

Guretzako, Feminismoa, batez ere, mugimendu sozial bat da. Ezinbestean bizi garen eta dugun sistema ekonomikoa, politikoa, soziala, kulturala, sinbolikoa zalantzan jarri behar duena. Zentzu honetan, gu ezkerrean kokatzen gara, oso ezkerrean. Gehienak emakumeak diren, milioika lagunak doako lanaren oinarria den eredu ekonomiko "desarrollista"ri eta neoliberalari, herrialdeen arteko harreman desorekatuei, inposatutako hitzarmen komertzialei kritikak Feminismotik oso erradikala izan behar du. Makilen sorrera, batez ere emakumeen eskulana erabiltzen dituena; milioika emakumeen esterilizazioak, haien osasunaren izenean; zainketen transnazioa edo sexuaren negozioa, mundu mailan hirugarren negozio garrantzitsu moduan direna urrekoaren adibide argiak. Nola ahaztu testuinguru hau gure kontra jo gabe?

Lau edo sei urtean behin bozka emanen biztanleei ahotsa ematen dieten demokrazia adierazgarrien botere politiko hegemonikoaren ereduari kritikak, Feminismotik ere erradikal aizan behar du. Honek, hitzaldi politiko bikoitza argitara utziko du, alde batetik, biztanleei sinestarazten die politikan parte-hartzen duela botoa emateagatik eta bestetik, erabakiak hartzeko benetako guneetatik aldentzen du, biztanleen pentsamendu kritikoa eta garapen politikoa galaraziz. Modu honetan, jendarte kontrolatua keta despolitizatuak sortzen dira.

Analisi hauetatik abiatuta, mugimendu feminista politika egiteko beste modu batzuk proposatzearen borrokatzen du. Ez bakarrik beste begirada batzuetatik, baita beste logika batzuetatik ere.

Honegatik guztiarengatik, mugimendu feminista beste mugimendu batzuekin batera parte-hartzen du, modu honetan espezifikoak diren borroka ezberdinak erlazioan jarriz. Haiengatik ikasten du eta feedbacka egoten da, sistema patriarkatua zalantzan jarriz, derrigorrez, gainontzeko opresio sistemak zalantzan jarriz pasatzen delarik. Harreman hauetan, garrantzitsua da espazio feminista mantentzen jarraitzea, propioa, autonomia, lortutako eremuak defendatzen dituena; antolatua eta emakumez osatua, etorkizuneko konkistarako strategi aberriak planteatzen laguntzen diguna.

Gainontzeko mugimendu sozialekin batera, espazio politikoaren okupazioa zalantzan jarri ezin den lana da, borroka gune moduan, kalea kasu, egunerokoaren espazioen berreskuratzeak batzen gaitu, hau baita espazio gune garrantzitsuena.

GURE BORROKAK ETA IKUSPEGI FEMINISTA BERRIAK

Ikuspegi feminista berri batzuk berdintasunezko Feminismoren kritikatik abiatzen dira. Feminismo hau eskubideen unibertsizazioaren eta tradizio ilustratuaren oinordekoa da. Emakume guztiok emakumeak izateagatik zapalduak garela, eta zapalkuntza honek gizonenekiko desberdintasun egoeran jartzen gaituela pentsaera feminista moderno honen ardatz nagusienetarikoa bat da. Ondorioz, ezin ditugu gizonen aspalditik lortutako eskubide berak izan. Horiek horrela, gizonen eskubide berez ezin baliatzeagatik, genero bazterketak emakume guztiak berdintzen gaitu. Berdintasunaren alde formalaren aurrean, benetako berdintasunaz aritzen gara. Legeek, emakumeon eskubideen adierazpenek eta politikaren formulazioak egoera hau zuzendu behar dute.

Paradigma honen aurrean, alts, ahots feministek beren kritikak entzunarazten dituzte.

Lehendabizikoa paradigma hegemoniko eta orokorrazle gisako modernitatearen analitik abiatzen da. Iraultza (frantziarra, ipar-amerikarra..) desberdinen bitartez eskubide zehatz batzuk lortzeak, eta hauek herritarren zati bati helarazteak, erreferente baten beharrak asetzeko eskubideak eratu ditu: gizon zuri, aberats, heterosexual, osasuntsu, heldu eta mendebaldekoarenak. Munduko zenbat biztanlek betetzen dituzte baldintza hauek? Behar berak al dituzte? Eskubide hauek munduko beste biztanleengan hedatzea da Berdintasunaren paradigman abiapuntua, eta emakumeok hor gaude; baina, nola unibertsalizatu daitezke eskubide guztiak kultura, etnia, lur...desberdintasunak kontuan hartu gabe? Non gelditzen dira, adibidez, herri indigenen lur jabetza komunalaren eskubideak? Eta emakumeok gure gorputzaz gozatzeko eta jabetzeko ditugun eskubideak? Pentsamendu moderno berdintasunean eta jende-eskubideen eraketan oinarritzen da, eta gizonaren ereduaren sartzea bere abiapuntua da.

Pentsaera feminista moderno ez dago jarrera orokorrazle honetatik salbuetsita. Ikuspegi feminista berrien bigarren kritika ildo honetakoa da. "Bigarren uhina" deituriko korrante feminista nagusiek, emakumeen errealitatearen dimentsio bakarreko ikuspuntu bat aztertu dute. Ez bakarrik feminismo liberala, bere erreferentea beti emakume zuria, klase ertainekoa, etxean asperturik eta esparru publikorako biderik itxita duena izan dena; Feminismo sozialista erradikalak ere emakumearen funtsa kontuan hartu du, eta honen "emakume izatearen" kontzeptio bateratuak eta emakume beltzen, chicanos, Indiako, etorkinen, eta abarren errealitateak oso zerikusi gutxi dute. Mendebaldeko arrazoibide feminista esentzualismoz eta etnozentrismoz blaitu da. Ez die genero zapalkuntzaz gain, arrazakeriaz, klase-mailaz, sexu-hautaketaz, etab, baldintzatuak izan diren beste errealitateei kasu egin. Honek harridura sortu dio emakume askori. Hauek mugimendu feministarekin bat egiten dute, baina bere agenda eta ondare historikoa neurri handi batean arrotza egiten zaie.

Honen haritik, hausnarketa berriek zapalkuntza era desberdinen arteko harremani eta mendetasun hauen bateratzearen ondorioei erantzun nahi diete. Zer dago emakume etorkinei, lesbianeiei, baliabide urrikoei eta jende bazterketa egoeran edo arriskuan daudenei buruz? Zer aldarrikatzen dute? Nonbaiten ba al dugu haiekin elkargunerik?

Guk, ikuspegi berri hauek bezala, zapalkuntzak anitzak direla eta desberdintasun desberdinak daudela pentsatzen dugu. Mugimendu feministak bere kontzientzia maila zabaldu behar du. Emakumeak izateaz gain, beste arrazoiengatik baztertuak diren beste kolektiboez ere aritu behar du: etnia, klasea, errepresioa, edo bestelako bazterketengatik.

Feminismoa munduaren ikuspegi bat da, munduan egoteko modu bat da, eta zapalkuntzak ohiko mailetan (sexua, arraza, etab) mugatu beharrean, elkar lotzeko eta kontzientziatzeko bidea irekitzen du. Honek, soilik berdintasunezko ikuspegitik emakumeon bazterketaren zergatiak aintzat hartzen dituen eta sistemari zilegitasuna ematen dion feminismo instituzionaletik urruntzen gaitu.

Emakumearen esentzia ere kritikatu dugu, gure ustez Feminismo homogeneizatzaile, global eta baztertzatzailea oinarritzen baitu. Ez dago emakumea izateko modu bakar bat. Emakume zuria, mendebaldekoa, heterosexuala, klase ertainekoa, ikasia eta herritarra ezin da eredu izan.

Azken puntu hau azpimarratu nahi dugu. "Herritartasun demokratiko" kontzeptuari buruzko eztabaida oso polemikoa da, eta kontraesan anitz dakar. Herritartasun nozioa barne sartzearen itzaropena eta agintza mantendu du, baina, aldi berean, baztertze sistema bat sortu du. Akaso, legearen arabera pertsona guztiak berdinak gara, baina zalantzarik gabe pertsona batzuk eskubideetara eta baliabideetara heltzea urriagoa da (bigarren mailako herritarrak).

Eta ez da hori bakarrik; lagun batzuk ez herritartzat hartzen dira. "Paperik gabekak", "legez kanpokoak", "eskubiderik gabeko ikusezinak". Baina eredu ekonomiko, demografiko, jendarteko eta politiko hau sostengatzeko ezinbestekoak dira. Herritartasun kontzeptua eta bere ezartze praktikoa eta legezkoa nahikoa da pertsona guztiak herritarrak izateko? Edo, berez baztertzatzailea den ereduaren ondorioa da?

Emakumeak bigarren mailako herritartzat hartzea feminismo batzuen salaketa nagusienetariko bat izan da. Baina mugimendu feministatik emakume guztiak bere gain hartzen ez dituen, edo "besteen" zapalkuntzaz oinarritzen den kontzeptu bat defendatzea era berean feminismo baztertzatzaile, homogeneizatzaile eta etnozentrikoa egitea dela deritzogu.

Gure apustua egiten dugu: politika instituzionalen aurrean, bazterretatik mikro-politiken alde (queer-en arabera); ilustrazioaren unibertsaltasunaren aurrean, identitate eta identifikazio anitzen alde, hau da, negoziaturiko identitateen alde (post-kolonialen arabera)

FEMINISMOAREN BEHARRA. USTEAK ETA ARRAZOIBIDEAK; AMATASUNA, FAMILIA ETA LANA

Mugimendu feministatik, eztabaidatzeko, lantzeko eta borrokak proposatzeko oso gai garrantzitsuak direla deritzogu, eta emakumeen egoera, bere identitate desberdinez eta bere bazterketa anitzez, eztabaidan jartzen dute. Honez gainera, despolitizazio fronteek gai hauek estaltzen dituzte, baztertzen dituzte, edo ez dira guretzat praktika politiko askatzaileetan gauzatzen.

AMATASUNA

Amatasuna emakumeei espresuki dagokigun gaia dela eta, mugimendu feminista, berriro ere bere argitasuna erakutsiz, bere hastapenetik amatasunari buruzko elementu zapaltzaile asko azaleratu ditu. Horiek horrela, "sexualitatea ez da amatasuna" aldarrikapena, sexu eta ugaltze eskubideen aldeko borroka, behartutako antzuteen salaketa, gure gorputzen jabetza, abortu libre eta dohainaren aldeko borroka, sexualitatea praktikatzeko era desberdinetako errekonozimendua, eredu heterosexualetik kanpokoa, etab., oso elementu garrantzitsuak dira mugimendu feministarako.

Gaur egun, gure jendartean eta inguruan, amatasuna emakumeen alde funtsezkotzat goraiatzen dela uste dugu. Betidanik emakumeentzat jendarte-agindu bat izan da, eta bere esanahia arrazoi material, erlijiozko, kultural eta abarrekoen baldintzapean izan da. Baina, irudimenezko kolektiboa ikusmolde berri baterantz abiatzen ari da. Honetan, amatasuna esperientzia paregabea da, kasik erlijiozkoa, eta emakumeak goiko mailan jartzen du.

Gure buruari zera galdetzen diogu: Jendartean, zein amatasun kontzeptuko aurrerapenek emakumeentzat askatasun maila handiago eragin dute? Ba al dago familia burgesaren ereduak ez den amatasunaren inguruko beste jende-antolaketa modurik? Politika instituzionalek emakumeentzat hain astunak ez diren amatasunaren beste aukerak sustatzen al ditu?

Ezetz uste dugu. Izan ere, lehen aipatu dugun bezala, gehiago goesten da. Amatasuna kontzeptu kulturala eta sozialki eraikia da. Ama, ama dela eta egoera honekin ezaugarri lotu guztiak naturalak direla pentsatzea, egoera baldintza bihurtuz, ez deritzogu amatasuna aurrera eramateko guretzat modu osasuntsu bat denik.

Amatasuna esperientzia saihestezintzat hartzen da, beste edozein baina baliagarriagoa. Bizitza ematea mundiala da. Alta, hazieraren porrotaren erantzuleak egiten gaituzte. Hau, egiatan, jendartearen porrota da, eta ez emakumeena. Are gehiago, genero rolen

errepikapenaren erantzuleak egiten gaituzte, etxean eta jendartean. Amaren zamak eta presio sozialek ez dute aitarenekin zerikusirik. "Ama txarra izatea" gauzarik okerrenea da, eta jendarteak ama txarra izateko ezaugarriak behin eta berriro zerrendatu eta birdefinitzen ditu. Sistema patriarkalak "emakume amen" bizitzan ezartzen duen zainketa eta kontrola etengabea da. Azkarra, mugikorra, eta berrerratzeko gaitasun handia duela eta, identifikatzeko oso zaila da. Amak ez direnak susmagarriak dira. Jendarte errespetagarriak "zerbait gertatu zaie ama izatea nahi ez izateko" dio.

FAMILIA

Familiari buruzko 70. hamarkadako ikuspegia berreskuratzea ezinbestekoa da mugimendu feministarako. Honek familia jendartearen euskarri nagusienetako bat dela dio. Familia erakunderik errespetatuena da, eta, honenbestez, jendarte egiturako gutxien kritikatzeko dena. Baina denok badakigu arlo honetan, maitasunaren esparruen artean nagusia dena, bortizkeria inpunitate osoz erabili eta zuritu egiten da. Familia erakundea bortxaketak, erasoak eta tratu txarrak burutzeko habitat erosoena da. Beren giroa da. Kalea, eskolak eta hedabideak ere bai, noski. Baina familiaren egituraketa hauekiko desberdintasuna da. Rolak desberdintzearen hierarkia, lanaren sexu banaketa, eta indar korrelazioa (zeinean sentimenduek beti emakumearen kontra egiten duten) emakumeen mendekotasunerako giro ezin hobea da.

Elkarbizitzako gune berriak agertzeagatik familia berriez aritzen jarraitzen da. Hala ere, familia era berriak, gay eta lesbianen arteko ezkontzak, guraso bakarrak, izatezko bikoteak, eta abarrekoek ez dute erakundea ahuldu. Esaterako, homosexualen ezkontzarako Lege berriak, nahiz eta lorpen bat izan, familia eredu nagusia sendotzen du. 1, 2 edo 3 kideko elkarbizitza talde hauek beti maitasun, seme-alaben edo odolkidetasun harremana dute. Ez da beste moduko elkarbizitzarik ezagutzen; ez dakigu ere hemen badagoen.

Maitasun/elkarbizitza/ugalketa ereduak, bere aldaketa berriekin eta guztiz (bikote homosexualak, adopzioak...) itzela da, jakina; ez emaitza onak emateagatik edo zoriona sortzeagatik, eredu eztabaida ezina izateagatik baizik. Honi buruz hausnartu behar dugula pentsatzen dugu. Nondik ateratzen da zure gustuko mutil/neska horrenganako konfiantza itsua berarekin bizitzeko eta zure seme-alaben aitatzat aukeratzeko? Eta gainera zure bizitza osorako?

Familiak emakumearen ohiko jokabidea legitimatzen du, eta lan gainezko eremu bat mugatzen du. Emakumeek beren senarren familiak zaindu behar dituzte, eta soilik zainketa hauek justifikatzean odolkidetzko loturak mozten dira. Eta puntu honetan azken gaiarekin topo egiten dugu: lana.

LANA

Mugimendu feministak gai hau oso garrantzitsutzat jotzen du. Jakina da gure burkideek orain arte egiten duten lana baloratzen dugula, eta honetaz hornitu gara. Lehenetsunezko gai bat dela pentsatzen jarraitzen dugu. Hala eta guztiz ere, aspalditik gaiari heldu diogu, gure ekarpen batzuk gehitu nahi ditugu.

Duela 3 edo 4 urteko martxoaren 8ko manifestazioan, "Enplegu nahi ditugu, lana soberan baitugu" lema feministaren aurrean, batzuk "Dirua nahi dugu, lana soberan baitugu" barrezka eta gaiztakeriaz abestu genuen.

Gure ustez, modernitatearen historia lanaren inposaketaren historia da. Azken 200 urtetan lan kontzeptu batek teoria politika eta sozialak bereganatu ditu. Ideia hau, kapitalismoaren hasieran jaio zen. Kapitalismoak sortu zuen, eta gaur egun berrelikatzen du, soldatapeko lanaren jendartea. Kontserbadoreek, sozialistek, faxistek, demokratek, bat egi dute lana ondasun eta jende helburutzat jotzean. Lan ekoizlea, soldatapekoa, noski. Hau dela eta, emakumeek lan sistema honetan sartu gara, eta lan kontzeptu hura barneratu dugu.

Bigarren uhineko feminismoek soldatapeko lan eredu hori bere gain hartu zuten, eta enplegua eskuratzea aldarrikapen feminista bihurtu zuen. Hala ere, espero zenez, gizonaren lan ereduan sarteak kontraesanak sortu zizkigun, eta gure emantzipazioa mugatu zuen. Eredu hau emakumeek egiten dituzten jarduera askotan oinarritzen da, eta hauetako jarduera asko ezin dira diru bilakatu. Etxeko zainketa eta horniketa lanak dira. Lan hauek ikusezinak dira, eta tradizionalki emakumeek esparru pribatuan bete ditugu.

Familiaren ideologia burgesak etxeko esparru pribatu hau "benetako bizitzaren" ikurtzat ezarri zuen, baina errealitatean "etxeko infernua" da. Lanak jotako gizonarentzat prestatutako maitasun eta afektu babeslekua. Langilearen atsedean esparru hau gabe beste esparruak ezin du funtzionatu, eta ondorioz, lan jendarteak ere ez. Toki hau bere isileko aurrebaldintza da, eta aldi berean, bere berariazko emaitza.

Emakumeen lanaldi bikoitzak, eta lan, familia eta jendarte bizitzen arteko adostasunaren ezintasuna kontraesan mukurua honen ondorioak dira, soldatapeko lanaren jendarte eredu eztabaidan jartzen ez baitute. Ez dute lana kapitalismoaren elikagai eta funtsezko baliabidea eredutzat hartzen duen jendarte kolokan jartzen. Nahi al dugu eztabaida feministak gizonezko eredu hau eta bere hedapenerako emakumeak erabiltzen dituen ekonomia eredu nagusiaren lan kontzeptua eransten jarrai dezan? Lana izan behar al da gure bizitzaren ardatza? Zer egingo dugu zainketekin?

Guk, mugimendu feministak lan/enpleguari buruz egindako guztia baloratuz, eztabaida honen bidez lan kontzeptua birdefinitzen saiatzen gara, eta beste emakumeen begiradak sartu,

esaterako etorkinenak, prostitutenak, etxeko andreenak, eta mota guztietako prekarioenak. Horrela, agian, dagoen ereduari eta bere logikei aurre egiteko politika iradokitzaileak ikasi ahalko ditugu.

Txostena bukatzeko, esan nahi dizuegu hauek pentsatzen ditugun gai anitzen arteko batzuk direla, eta praktika eta eztabaida kolektiboa, feminista eta erradikaletik sortu dira. Oraindik esateko eta egiteko asko badugu. Saiatu gara feminista izatea, hitza aldarrikatzea, borroka eta mugimenduaren garrantzia azaltzen. Guri kontu gehiagorik ez. Ohi bezala, ez diegu sinesteko.

Bukatzeko, gure emakume edadetuenei eta jakintsuenei eskerrak eman nahi dizkiegu. Feminista izaten eta geure irizpideak mantentzen ahalegin handiz irakatsi dizkigute, eta eskertu nahi diegu. Haiek istorio asko kontatu dizkigute, baina denak desobeditzaileak, egunerokoak eta subjektiboak izan dira. Emakume borrokalariak eta isiltzen ez direnen istorioak azaldu dizkigute; kontatzen dutenenak eta gogaitzen direnenak. Ez dute ezarritako agindu sozialekin zerikusirik; beti aurre eginez. Hori da gure borroka, mugimendu feministarena. Eta gure emakume gateei ere eskerrak eman nahi diegu. Haiek azkarrenak eta borrokalariak dira. Begiak irekirik so egiten dute, eta bost zentzumenez entzuten dute. Emakume gazteek borroka pizturik dirauela eta berdintasuna bide-oztopo bat dela esaten dute.

Haiek guztiek beren ekarpenak egin dizkiote txostenari, eta haiei esker mugimendu feminista jira kiribilduak egiten ditu eta erlojuaren orratzen kontrako bidean mugitzen da. Eskerrik asko Emakume Internazionalistak taldearen izenean.